

## VITAL FUNDAZIOAREN EMAKUMEZKOEN SASKIBALOI TXAPELKETEN OINARRIAK

- 1. Antolatzailea:** Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena.
  - 2. Helburua:** Gasteizen eta Araban emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean. Emakumezkoen kirola sustatzea ez soilik eskolaz kanpoko jarduera moduan, baizik eta lanerako irtenbide izan daitekeen moduan, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.
  - 3. Kategoriak eta adinak:** Taldeak 9 eta 16 urte arteko neskez osatuak izan behar dute oso-osorik. Hauek izango dira kategoriak: Benjaminak, 9 eta 10 urte; Alebinak, 11 eta 12 urte; Infantilak, 13 eta 14 urte; Kadeteak, 15 eta 16 urte. Onartu egingo da jokalaria bat, bere adinaren arabera, dagokion maila baino hurrengo goragoko mailan dagoen talde batean sartzea. Ez da onartuko alderantzizko kasurik, hau da, jokalaria batek adinez dagokion maila baino beheragoko talde batean jokatzea. \*
- \* Kasu jakinen batean antolakuntzak kontrakoa erabakitakoa izan ezik.
- 4. Jokalekua:** Txapelketa bakoitzerako antolatzaileek seinalatzen dituzten ezaugarriez markaturikoa izango da. Horiek txapelketa bakoitzerako erabiltzen diren edo prestatzen diren instalazioen arabera egongo dira markatuak: Estadio Fundazioaren Kirol Instalazioak, Plaza Berria eta abar. Azalera erregula izango du, zabalean 15 m eta luzean 11 m. Saskiak: beheko kategorietan 2,60 m, eta erdi eta goiko kategorietan, 3,05 m.
  - 5. Osasun estaldura:** Txapelketaren eta ekitaldia egingo den instalazioaren antolatzaileek ez dute beren gain hartuko parte-hartzaileen egoera fisikoaren ardurarik, ezta lesio baten kasuan gerta litekeenarenik ere.

→ **Izena emateko egunak, Plaza Berria Txapelketa (2018/4/22): apirilaren 6tik 19ra.**

- Talde bakoitza 3 pertsonaz + 1 ordezkoez osatuta egongo da, hau da, taldeko 4 pertsona guztira. Izena emateko fitxa bete beharko dute:
- 
- Taldearen izena.
- Partaideen izena eta abizenak.
- Neskato partaideen jaioturtea
- Harremanetarako, ordezkariaren telefonoa edo posta elektronikoa.

Izen ematea egiteko programa ofizialaren web-orriko inprimakia bete beharko da.

## **6. Lehiaketaren arauak:**

- Jokalekua: mugaturik egongo da 11 x 15 m-tako zelai baten instalazioez edo, halakorik ezean, ezaugarri bertsuko hesiez.
- Saski bakar batekin jokatzen da.
- Partida bakoitzaren iraupena: 10 minutu etengabeak, jaurtiketa librean izan ezik.
- Taldeko jokalaria kopurua: 3 jokalaria + 1 ordezkoa.
- Jokalariak jokorako arropa egokiak jantziko dituzte.
- Antolakuntzak emango dizkie jokalariei lehiaketan erabiltzeko petoak.
- Jokalariak entrenatzaile bat izango dute aholkuak emateko jokaldiez, estrategiez eta abarrez.
- Puntuak: saskiratze guztiek 1 puntu balioko dute, marra hirukoitzaren atzetik jaurtitzen direnak izan ezik, haiek 2 puntu balioko dute. Partida bakoitzean puntu gehien metatzen dituen izango da irabazlea.
- Partida berdinketaz bukatuko balitz, talde bakoitzetik une horretan jokatzen ari diren hiru jokalarietako bakoitzak jaurtiketa libre bat egin beharko du, eta saskiratze gehien egiten dituen taldeak irabaziko du; hori egin ondoren, berdinketak jarraitzen badu, "bat-bateko heriotza" sistemaz jokatuko da: aldi bakoitzean jokalaria batek jaurtiz eta errepikatu gabe.
- Eraso egiteko, baloia edukitzea 20 segundotakoa izango da.

- Lehenengo baloi edukitzea biren arteko jauzi batez egingo da. Baloia atxikitzea beti izaten da defentsan ari zen taldearentzat.
  - Edukitze aldaketa, eraso errebote edo baloi berreskuratu bakoitzaren ostean, baloia marra hirukoitzetik haratago atera beharko da saskiratzea lortu aurretik. Saskiratzea marra hirukoitzetik irten gabe lortuko balitz, puntua baliogabetu egingo litzateke eta talde aurkarirentzat izango da baloia edukitzea.
  - Saskiratze bakoitzaren ostean, baloia edukitzea aldatu egiten da eta jokoa zelai erdiko marraren atzetik pase batez hasten.
  - Baloia kanpora irteten denean, albotik jarri beharko da jokoan.
  - Faltak: partida bakoitzean jokalaria batek gehienez egin ditzakeen falta pertsonalak 4 izango dira. Faltak ez dira gainerako partidetarako metagarriak.
  - Partida guztietan mahia bat egongo da, eta arbitro epaile bat, zeinaren erabakiak apelaezinak diren.
  - Jokalariak ordezkoekin noiznahi alda daitezke, baldin eta beti hiru jokalaria badaude jokalekuan.
  - Partiden ordutegiak antolakuntzak markatuak izango dira.
  - Antolakuntzak eta bere diziplina batzordeak beretzat gordetzen du araudia betetzen ez duten jokalariak edo taldeak botatzeko eskubidea.
- 7. Sariak:** parte-hartzaile guztiei motxila bat, edaria eta programaren kamiseta bat oparituko zaie. Gainera, txapelketaren irabazleek baloi bat eta domina bat jasoko dute.